



BILBOKO BULARREKO MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTASUN LASTERKETA/MARTXA



LASTERKETA

IBILBIDEA

- Ibilbidea 5 km-koa izango da eta korrika, oinez edo patinez burutu daiteke.
- Lasterketa goizeko **11:00etan** hasiko da Guggenheim Museoaren zabalgunean eta pasealekutik Euskalduna Jauregirantz joango gara.
- Euskalduna Jauregitik Euskalduna zubia jaitsiko dugu eta udaletxerantz abiatuko gara Deustu, Pedro Arrupe eta La Salve zubipeetatik igaroz.
- Campo Volantinetik udaletxerantz abiatuko gara Guggenheim Museoak eskaintzen dituen bista paregabeak gozatuz.
- Udaletxera heltzean Ripa guneko aldapa jeitsiko dugu Uribitarte pasealekurantz, itsasadarraren albotik Guggenheimerako bidea hartuz.
- La Salve zubiaren azpitik berriro igaroko gara eta Mama armiarma eta Guggenheimeko pasabidea atzean utzita Museoan kokatuta dagoen helmugara ailegatuko gara.
- Goizean zehar musika eta giro apartaz gozatzeko aukera izango dugu.